

Txillardegi

Petillatik Bidankozera



rain dela urte mordo bat, berrogeita hamar urte agian, nafar gailen baten berri izan nuen: Santiago Ramón y Cajal, (1852-1934); 1906an Nobel Saria (Medikuntza sailean). Histologiako bere ikerkuntzek eman zioten ospea.

Baina nafar berezia zen; Nafarroako herri bitxi batean jaio baitzen: Aragoiko Petillan, Zangozako merindadean. Areago: Petilla horrek, halako anti-Trebiño modura, bi uharte baititu: Petilla herriari dagokiona bata, eta Baztanen izenekoari bestea.

Hots, gure nafar Nobel Saria, oso txikitandik aldatu zen Huescara. Eta erro sendoagoak izan zituen geroztik Aragoi, Nafarroan baino.

Esan beharrik ez: medikuntzaz nik ezer ez dakidalarik, beste sargune bat behar nuen.



DANI BLANCO

ren kontrakoa: “Hasta en la noble Navarra existe un partido separatista” (136). Euskaldunok eskergabeak izan garela uste zuen: “Nos falta el culto de la Patria grande” (138).

Hots, garai bertsuan, Bidankozeko nafar batek guztiz bestaldera sentitzen zuen; eta gailur gorenak lortu zituen Euskal Herriaren kondairan. Mariano Mendigatxa Ornat gogorazi nahi dugu. Bidankozekoa; Erronkari (1832- 1918). Alor akademikoan maila txikikoa (Bidankozeko eskolan besterik ez izana), baina oso buru argikoa, eta euskal dialektologian benetako zutarri bihurtzekoa.

Mendigatxa Bonaparte famatuak ezagutu zuen 1857an. Eta hortik aurrera hogeituz izan zen *informante* bikaina Bonaparterentzat eta Azkuerentzat.

Hots, Mendigatxak ere bazuen “laurogei urteetako kezka”. Bidankozeko

Ramón y Cajalek bere buruaz

barre egiteko gaitasuna bazuen;

eta liburuaren irakurketa arrunt

entretengarri gertatzen da

Hots, aukera ez zitzaidan luzatu: *El Mundo visto a los ochenta años (Impresiones de un arterioesclerótico)* (1934). Autorea hil baino lehentxeago argitaratua.

Ramón y Cajalek bere buruaz barre egiteko gaitasuna bazuen; eta liburuaren irakurketa arrunt entretengarri gertatzen da.

Gazte denboran erreparatu ere egiten ez zituen aldapatxoak, adibidez: “Apenas puedo caminar sin fatiga 300 m. La despreciable altura del Cerro de San Blas se me antoja la cumbre de la Maladeta” (39). “La suavísima calle de Alcalá, por ejemplo, se me antoja cuesta imponente”.

Baina, guri dagokigunez, Ramón y Cajal osoki zen euskal abertzaletasuna-

Elkarren antipoda izanik ere, bikote

harrigarria Ramón y Cajal eta

Mendigatxa nafarrek osatutakoa.

Nafarroako bi herrixka horiek

sinbolo ere bilakatu arte

erronkariarrak, berak esanik, Mendigatxa bera baino zaharragoak ziren. Zer bilakatu ote zen Bonapartek eta Azkuek horren zehazki maitatzen irakatsi zioten euskalkiaz? Bai *Fontes* aldizkariak (FLV 43), bai Alfontso Irigoienek 1957an argitaratu zuten gutuneria (Mendigatxa-Azkue), guztiz balio handiko lanak dira.

Bidankozetik Donibane Lohitzunera joan zen Mendigatxa, mandoz, Bonaparteri erronkariara irakastera.

Elkarren antipoda izanik ere, bikote harrigarria Ramón y Cajal eta Mendigatxa nafarrek osatutakoa.

Nafarroako bi herrixka horiek sinbolo ere bilakatu arte. ■